AUTOIKASKUNTZA

ALBISTEAK

2025 (AZAROA / ABENDUA)

24.korrika aek



Badator 24. KORRIKA!

Kalean da KORRIKA-KANTA!

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

B1
MAILA

ELKARRIZKETA (2025/11/13)

Badator 24. KORRIKA!



Irudia (AEK): 24. KORRIKAren aurkezpena Gasteizeko Izaskun Arrue Kulturgunean

Elkarrizketa Ane Elordi Alburquerque KORRIKA arduradunari[1]

"Badator 24. KORRIKA!". 2026ko martxoaren 19tik 29ra, KORRIKA, euskararen aldeko[2] lasterketa erraldoia, Euskal Herrian ibiliko da berriro, eta gure herriak kolorez, musikaz, ilusioz eta euskaraz jantziko ditu. Lasterketaren aurkezpena egiteko, AEKk Gasteizeko Izaskun Arrue Kulturgunean elkartu ditu kazetariak. Bertan, Ane Elordi KORRIKA arduradunarekin hitz egin dugu.

Zer da KORRIKA? Nola azaldu ezagutzen ez duen bati?

KORRIKA euskararen aldeko lasterketa erraldoia[3] da, Euskal Herriko ekimenik[4] jendetsuena eta zirraragarriena[5]. 11 egunez, gau eta egun, 2500 kilometro inguru egingo ditugu Euskal Herriko bazter guztietatik, eta mezu sekretua gordetzen duen lekukoa[6] eskuz esku[7] ibiliko da.

Zein da KORRIKAren helburua?

Bi dira helburuak: euskara bultzatzea[8] eta AEKk euskararen normalizazioan egiten duen eguneroko lana ekonomikoki laguntzea.

Zergatik "Euskara gara" leloa[9]?

Euskarak egiten gaituelako nor. Guztiok gara ezinbesteko[10], guztiok herri bat gara. Euskal hiztun[11] aktiboak sortu nahi ditugu. Euskaraz eroso[12] bizitzeko espazioak behar ditugu. Hori guztia aldarrikatzen[13] dugu.

Oraingoa[14] 24. edizioa da. Askotxo da hori...

Bai, benetan! Esaten da hiru euskal herritarretik batek parte hartu izan duela. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ilusioa berreskuratzea[15]: kalean, sareetan, ikastetxeetan, diasporan eta abarretan.

Horri lotuta, KORRIKA "mundiala" dela ere[16] esan daiteke, ezta?

Bai, hala da! Mundu osoko 60 bat[17] tokitako hiri nagusietan ere ibiliko da 24. KORRIKA: La Platan, San Frantziskon, New Yorken, Parisen, Berlinen, Bartzelonan, Bruselan, Shanghain, Tokion...

KORRIKAren "ahizpak" ere hor ditugu...

Bai, horixe da. Munduko hizkuntza gutxituen alde egiten dira horiek. Hego Amerikan, maputxeen hizkuntzaren aldeko lasterketa (Lefkantun), Bretainian (Ar Redadeg), Okzitanian (La Passem), Alsazian (Sprochrenner), Irlandan (Rith), Galesen (Ras yr Iaith), Katalunian (Correllengua), Galizian (Correlingua) eta Korsikan (Corrilingua).

Nondik nora joango da 24. KORRIKA?

Atharratzetik (Zuberoa) Bilbora joango da, martxoaren 19tik 29ra. Baina, eguneroko ibilbide zehatza[18] ezagutzeko, apur bat itxaron beharko duzue.

Ados, zain egongo gara! Eta, zer esan dezakezue KORRIKA alaituko duen kantaz?

Esan baino, onena izango da zeuek entzutea! Espero dugu zuen gustukoa izatea!

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

24. KORRIKA



Ane Elordi, KORRIKA arduraduna (Zornotza, 1991)

Nor omenduko[19] du 24. edizioak?

24. KORRIKAk Errigora omenduko du. Euskararentzat eta euskaraz lanean ari den ekimen herritar horri aitortza[20] egin gura diogu, egin duen eta egiten ari den lanarengatik. Babesa[21] adierazi eta aurrera jarraitzeko bultzada[22] eman nahi diogu.

Nola hartzen da parte KORRIKAn?

Modu asko daude: korrika eginez, KORRIKA kulturalean parte hartuz, KORRIKA batzordeetan[23] lan eginez eta KORRIKA LAGUNTZAILEA eginez. Horixe da KORRIKA ekonomikoki laguntzeko modu onena. AEK-KORRIKA aplikazioa ere deskarga dezakezue, bertan izango dira KORRIKA LAGUNTZAILEentzako asteroko zozketen irabazleen izenak, ibilbidea eta abar. KORRIKA materiala ere laster egongo da salgai[24]: arropa eta abar.

Tira, bada, KORRIKA on!

Horixe! Errepidean ikusiko dugu elkar!

Hiztegia

[1] Arduradun: *responsable*
[2] -ren alde: a/en favor de...; *en faveur de...*
[3] Lasterketa erraldoi: carrera gigante; *course géante*
[4] Ekimen: iniciativa; *initiative*
[5] Zirraragarri: emocionante; *impressionnant,-e*
[6] Lekukoa: testigo; *témoin*
[7] Eskuz esku: de mano en mano; *de main en main*
[8] Bultzatu: impulsar; *promouvoir, soutenir*
[9] Leloa: *eslogan; slogan*
[10] Ezinbesteko: imprescindible; *indispensable*
[11] Hiztun: hablante; *sujet parlant*
[12] Eroso: cómodo/a; *commode*
[13] Aldarrikatu: reivindicar; *revendiquer*
[14] Oraingoa: la de esta vez; *cette fois*
[15] Berreskuratu: recuperar; *récupérer*
[16] Ere: también; *aussi*
[17] 60 bat: unos 60; *environ 60*
[18] Zehatza: concreto/a; *exact,-e, précis*
[19] Omendu: homenajear; *rendre hommage*
[20] Aitortza egin: reconocer; *avouez*
[21] Babesa: apoyo; *soutien*
[22] Bultzada: empujón; *bourrade*
[23] Batzorde: *comité*
[24] Salgai: en venta; *en vente*

► **Azpimarratu forma zuzenak, eta gero erantzun: egia ala gezurra dira?**

E	G	
☐	☐	1. KORRIKA euskararen aldeko ekimenik **zirraragarriagoa / zirraragarriena / zirraragarriegia** da.
☐	☐	2. KORRIKA **ikastola / ikastolak / ikastolek** antolatzen dute.
☐	☐	3. KORRIKA ez **da / du / dio** Nafarroatik pasatzen.
☐	☐	4. Txanda-aldaketan korrikalariek bostekoa ematen **da / dute / diote** elkarri.
☐	☐	5. Hamaika egunean KORRIKA **inoiz ez gelditzen da / ez da inoiz gelditzen / ez gelditzen da inoiz**.
☐	☐	6. KORRIKAk **euskara / euskaraz / euskararekin** eroso bizi nahi dugula aldarrikatuko du.
☐	☐	7. **KORRIKA / KORRIKAk / KORRIKek** 60 bat "ahizpa" ditu Euskal Herritik kanpo.
☐	☐	8. Aurtengo KORRIKA **martxoak 19 / martxoaren 19n / martxoaren 19an** hasiko da.
☐	☐	9. Aurtengo KORRIKA Ipar Euskal Herrian **amaitu / amaitzen / amaituko** da.
☐	☐	10. Aurtengo **KORRIKAk / KORRIKA** euskara-irakasleak omenduko ditu.
☐	☐	11. Diruz laguntzeko modu onena da KORRIKA LAGUNTZAILEA **izatea / izaten / izan**.
☐	☐	12. AEK-KORRIKA Aplikazioan ibilbidea ikus **dezake/ daiteke / ahal da**.

"KORRIKA LAGUNTZAILEAK BIZITZA ALDATU DIT"

Miren, KORRIKA Laguntzaile egin aurretik.



Zoritxarrekoa nintzen. Ez nuen lanik. Plan bat proposatzen nuen bakoitzean, lagunek beti izaten zuten "zerbait": ezkontza bat, hileta bat, lapikoa sutan... Maskotekin ere ez nuen zorte handirik: Pituk, nire katuak, erosi eta egun pare batera ihes egin zidan leihotik, zazpigarren solairuan bizi ginela kontuan hartu gabe[1] (portzierto, edo katuen zazpi bizitzena gezurra da, edo Pituk lehenengo seiak bizi izanak zituen ordurako[2]...); a, eta arraintxoa ito egin zitzaidan. Ez nekien zer zen semaforo bat berde aurkitzea. Eta horrela beti...

Miren, KORRIKA Laguntzaile egin ondoren.



Baina egun batean, AEKko lagun batek KORRIKA Laguntzailea izatea proposatu zidan, eta baietz esan nion; bada, bizitza goitik behera aldatu zait: lanean nabil; lagunak ezin dira ni gabe bizi; telefonoz gestio bat egin behar dudan bakoitzean[3], beti izaten da langile jator bat libre, niretzat. Gauetik goizera, infernua paradisu bilakatu[4] zait!".

Hiztegia:

[1] Kontuan hartu gabe: sin tener en cuenta; *sans compter*

[2] Ordurako: para entonces; *d'ici là*

[3] -n bakoitzean: cada vez que; *à chaque fois*

[4] Bilakatu: convertir; *est devenu*

[5] Antzekotasun: parecido; *similitude*

[6] Ekarpena: aportación; *contribution*

Oharra:

Aurreko testigantza fikziozkoa da, eta bizitza errealarekiko edozein antzekotasun[5] kasualitate hutsa da; baina, zure kasuan egia bilakatuko balitz?

Egin zaitez KORRIKA Laguntzaile!

Paradisua zure zain dago; eta aurkitzen ez baduzu, kontuan hartu zure ekarpenak[6] KORRIKA aurrera ateratzen lagunduko duela. Ez da gutxi, ezta?

► **Azpimarratu forma zuzenak, eta gero erantzun: egia ala gezurra dira?**

E	G	
☐	☐	1. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, Miren pozik bizi zuen / zen / zitzaion.
☐	☐	2. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, lagunek plan asko egiten zuen / zuten / ziren Mirenekin.
☐	☐	3. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, Pitu, Mirenen katua, hil egin zen / zuen / zion.
☐	☐	4. Orain, Mirenek ez dauzka lanik / ez dauzka lanak / ez dauka lanik.
☐	☐	5. Orain, Mirenek / Miren zorte handia du telefonoz gestioak egiten dituenean.
☐	☐	6. Orain Miren "paradisuan" bizi da / bizi izan da / bizi izan du.

Kalean da 24. KORRIKA-kanta: *Xiberutikan Mendebaldera*



Irudia (AEK): kantaren aurkezpena (Erramun, Ane, Pello eta Maixus)

► **Hemen behean, kantan parte hartu duten artista batzuk ezagutuko dituzu:**

Pello Reparaz Escala (Arbizu, Nafarroa Garaia, 1990)

Musikari, konpositore eta ekoizle[1] ezaguna da, eta 24. KORRIKA-kantaren sortzaile[2] eta zuzendari[3] artistikoa; gainera[4], ahotsetako bat[5] .... (1) jarri du.

16 urterekin, Vendetta (2007-2018) taldea sortu .... (2) (ska eta punk musika-estiloak lantzen zituen); 29rekin, Zetak (musika pop-elektronikoa egiten dute). Lehen diskoko *Errepidean* .... (3) denbora gutxian milioi bat bisitari baino gehiago izan zituen sare sozialetan. Antzekoa[6] gertatu zen 2019an *Zeinen ederra izango den* abestiarekin. Tarte horretan[7], 2018-2019, Pellok *Euskalonski* telebista saioa aurkeztu zuen, non munduan zehar bizi diren euskaldunak bisitatzen .... (4).

2022an, Herri Urratseko abestiarekin itzuli[8] .... (5) Zetak taldea; Erramun Martikorenarekin elkarlanean[9] ateratako abestia da *Itzulera*. Erabateko[10] estilo-aldaketa izan zen. 2025ean, Euskal Herriko hiru hiriburutan ikuskizun-sorta[11] bat antolatu du: *Mitoaroa*. Bertan, musika, dantza eta antzerkia uztartu[12] ditu.

Erramun Martikorena, *Otsobi* (Baigorri, Nafarroa Beherea, 1943)

Sekula modu profesionalean aritu ez .... (6), jarraitzaile[13] asko ditu Erramun Martikorenak. Lanbidez, laboraria eta artzaina da. Haren kantuak lurrari eta herriari oso lotuta .... (7). 24. KORRIKA kantaren ahotsetako bat da.

Ipar Euskal Herriko bertsolarien bertsoak eta herri-kantuak kantatzen .... (8), askotan *a cappella*. Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* kantaren bertsioak egin zuen ezagun, eta, gaur egun[14], erreferente da euskal musikan.

Maixux Zugarramurdi Zestau (Goizueta, Nafarroa Garaia, 1955).

Abeslaria da eta 24. KORRIKA-kantaren ahotsetako bat da. 2024an, Zetak taldearen *Hileta kantu nafarra* abestiarekin egin zen ezagun, ... (9) aurretik ibilbide luzea zuen.

Maixuxek etxe-giroan abesten .... (10), abesbatzetan[15] eta tokiko ekimenetan[16], 2017an agertokira[17] atera zen arte. Bere hiru alabekin batera, *Artantxuriketa* ikuskizuna aurkeztu zuen.

Iturria: eu.wikipedia (moldatuta)

Hiztegia:

[1] Ekoizle: productor/a; *producteur*
[2] Sortzaile: creador/a; *créateur*
[3] Zuzendari: director/a; *directeur, directrice*
[4] Gainera: además; *en plus*
[5] Ahotsetako bat: una de las voces; *une des voix*
[6] Antzekoa: parecido; *similaire*
[7] Tarte horretan: en ese período; *à cette époque*
[8] Itzuli: volver; *retourner*
[9] Elkarlanean: trabajando juntos/as; *travail en équipe*
[10] Erabateko: total; *absolu,-e*
[11] Sorta bat: un conjunto; *une série de (spectacles)*
[12] Uztartu: unir; *allier*
[13] Jarraitzaile: seguidor/a; *fans*
[14] Gaur egun: hoy en día; *actuellement*
[15] Abesbatza: coro; *chorale*
[16] Ekimen: iniciativa; *initiative*
[17] Agertoki: escenario; *scéne*

► **Azpimarratu forma zuzenak:**

1. ere bai / ere / baita
2. zuen / zituen / zitzaion
3. kanta / kantak / kantek
4. zuen / zituen / zen
5. zen / zuen / zuten
6. nahiz / nahiz eta / arren
7. nago / dago / daude
8. du / ditu / dute
9. naiz eta / nahiz eta / arren
10. zen / zuen / zuten

24. KORRIKA-kanta

Xiberutikan Mendebaldera

Herensugeren ..... [1]
Santa-Grazitikan
Zarrakaztelura

Eta Errigoraren auzolan ..... [2]
Eskutik eskura
Hori ere bagara

Sorgin baten azken ..... [3]
Itoizko kaleetan

Zer gara euskara bera ez bagara
Maixux eta Erramunen ..... [4]

Maitasun eskutitz baten bide luzea
Xiberutikan Mendebaldera
Junkeraren fandango berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho gaztetan
Gailur berrietan

Basurdearen ..... [5] gara
Elorretatikan
Agurainaldera

Larruz eraikitako milaka ..... [6]
Dajlatik Gazara
Hor da gure gogoa

Ezkerraldeko AEK
Saretuz ..... [7]

Artzain gazte bat kontu zaharretan
Bariñako Bidane Baskaran

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)

..... [8] bat gâteau batean baino
Euskara gara

Ilargirik gabe mareak ..... [9]
Nola bestela?
Nola bestela?

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)

► **Entzun kanta eta bete hutsuneak (aukerak):**

AZTARNA	ITZALA	KANTA
GORA	EREDUA	LAUBURU
LURRA	HERRIAN	ETXOLA

ERRONKA: *baietz errepika buruz ikasi!*

FITXA TEKNIKOA:
Musika eta hitzak: Pello Reparaz (ZETAK)
Programazio eta grabaketak: Pello Reparaz
Ahotsak: Pello Reparaz, Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena

Koroak: Maider, Ainhoa eta Arantxa Ansa
Koroak: Naizen elkartea
Ekoizpena: Pello Reparaz
Nahasketa: Paxkal Etxepare
Mastering: Simon Capony

Gustatu zaizu kanta?
Eta bideoklipa?

- ☐ *Bai, (izugarri) gustatu zait.*
- ☐ *Bai, baina...*
- ☐ *Ez, ez zait gehiegi gustatu.*
- ☐ *Ez dakit zer esan.*
- ☐ *Nire ustez...*



1. BADATOR 24. KORRIKA!

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. KORRIKA euskararen aldeko ekimenik **zirraragarriena** da. EGIA (tira, guretzat bai, baina, zorionez, euskararen aldeko ekimen zirraragarri asko egiten dira!)
2. KORRIKA **ikastolek** antolatzen dute. GEZURRA (AEKk antolatzen du)
3. KORRIKA ez **da** Nafarroatik pasatzen. GEZURRA (Euskal Herri osotik pasatzen da: Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa)
4. Txanda-aldaketan korrikalariek bostekoa ematen **diote** elkarri. GEZURRA (lekukoa ematen diote elkarri)
5. Hamaika egunean KORRIKA **ez da inoiz gelditzen**. EGIA
6. KORRIKAk **euskaraz** eroso bizi nahi dugula aldarrikatuko du. EGIA
7. **KORRIKAk** 60 bat "ahizpa" ditu Euskal Herritik kanpo. GEZURRA (bederatzi ditu)
8. Aurtengo KORRIKA **martxoaren 19an** hasiko da. EGIA
9. Aurtengo KORRIKA Ipar Euskal Herrian **amaituko** da. GEZURRA (han hasiko da, Atharratzen)
10. Aurtengo **KORRIKAk** euskara-irakasleak omenduko ditu. GEZURRA (Errigora omenduko du)
11. Diruz laguntzeko modu onena da KORRIKA LAGUNTZAILEA **izatea**. EGIA
12. AEK-KORRIKA Aplikazioan ibilbidea ikus **daiteke**. EGIA (hori eta gauza gehiago!)

2. KORRIKA LAGUNTZAILEA ETA MIRENEN ZORIONTASUNA

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, Miren pozik bizi **zen**. GEZURRA
2. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, lagunek plan asko egiten **zuten** Mirenekin. GEZURRA
3. KORRIKA Laguntzaile egin aurretik, Pitu, Mirenen katua, hil egin **zen**. EGIA
4. Orain, Mirenek **ez dauka lanik**. GEZURRA
5. Orain, **Mirenek** zorte handia du telefonoz gestioak egiten dituenean. EGIA
6. Orain Miren "paradisuan" bizi **da**. EGIA

3. KALEAN DA 24. KORRIKA-KANTA!

EGILEAK

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. ere bai / **ere** / baita
2. **zuen** / zituen / zitzaion
3. kanta / **kantak** / kantek
4. zuen / **zituen** / zen
5. **zen** / zuen / zuten
6. nahiz / nahiz eta / **arren**
7. nago / dago / **daude**
8. du / **ditu** / dute
9. naiz eta / **nahiz eta** / arren
10. zen / **zuen** / zuten

KANTA

ERANTZUN ZUZENAK:

1. ITZALA; 2. EREDUA; 3. KANTA;
4. HERRIAN; 5. AZTARNA; 6. ETXOLA;
7. LURRA; 8. LAUBURU; 9. GORA.

► BIDEO HAUEK IKUSI ETA TUTOREAREKIN KOMENTATU:

1) ZER DA KORRIKA? IKUSI IRUDIAK ETA TUTOREAREKIN KOMENTATU!
Korrika.eus webgunean **"Bideokronikak 23"** idatzita hauxe agertuko da. Aukeratu zure eskualdekoa (2-4 minutu ingurukoak dira):
https://www.korrika.eus/eu/component/yendifvideoshare/search?s=Bideokronika

2) **24. KORRIKA KANTAren Spota**
https://www.youtube.com/watch?v=L8te2fngQFs&t=18s

3) **AEK zer den** jakiteko, ikusi bideo hau (Zer da AEK?):
https://www.youtube.com/watch?v=JmOQF_3xr6w (azpidatziak euskaraz)
https://www.youtube.com/watch?v=yha1qa1O5v0 (azpidatziak frantsesez)
https://www.youtube.com/watch?v=3kzfLoVO3Ag (azpidatziak gaztelaniaz)
https://www.youtube.com/watch?v=_aGcOmr0E_c (azpidatziak ingelesez)

4) ***Xiberutikan Mendebaldera*** **(24. KORRIKAren abestia eta bideoklipa):**
Xiberutikan Mendebaldera - ZETAK (24. KORRIKA), Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena
https://www.korrika.eus/media/videos/2025/12/20/xiberutikan_mendebaldera2.mp4

► UNITATE HONETAKO JARDUERAK (ETA GEHIAGO):

ONLINE EGITEKO, JO HONA:
https://korrika.h5p.com/content/1292712691560999677 (A1 ONLINE)
https://korrika.h5p.com/content/1292128922913403897 (KORRIKA LEXIKOA IKASTEN)

ERREPASATZEKO JOLASA (KAHOOT): ZER DAKIZUE KORRIKAZ?
Klikatu "Modo clasico", idatzi zure izena eta hasi jolasten!
https://kahoot.it/solo/?quizId=37406758-c110-4f4d-aec0-7100bd3305be (Bakarka jolasteko)

► MIREN BEZAIN ZORIONTSU IZAN NAHI DUZU?

BADA, KORRIKA LAGUNTZAILEA EGITEKO, JO HONA:
https://www.korrika.eus/eu/laguntzailea/izan-laguntzailea

KORRIKA-AEK APLIKAZIOA DESKARGATZEKO, JO HONA:
- ANDROID: https://play.google.com/store/apps/details?id=com.korrika.eus&hl=eu
- IOS (APPLE): https://apps.apple.com/es/app/korrika-app-ofiziala/id6471959224

► EUSKAL MUSIKA ENTZUN NAHI DUZU?

ZOAZ GUNE HONETARA: BADOK.EUS

https://www.badok.eus/

KORRIKA-KANTA GEHIAGO ENTZUN NAHI DUZU? BADA, KLIKATU HEMEN:

https://www.argia.eus/albistea/korrika-abesti-guztien-bilduma (Edizio guztietako Korrika-kantak)